gara

2009-10-31

# Joan Mari Torrealdai euskaltzain osoak sarrera-hitzaldia egin du

**Foruko Frantziskotarren elizan egin da Joan Mari Torrealdai euskaltainaren sarrera ekitaldia.**

GERNIKA-. "Bibliografiatik bibliotekara. Esperantzari lehioa" izenburuko sarrera-hitzaldia irakurri du gar Foruko Frantziskotarren elizan Joan Mari Torrealdaik.

Euskaltzaindiak 1007ko azaroaren 30ean izendatu zuen euskaltzain oso Torrealdai eta Igor Duñabeitia Foriko alkatearen ongietorriak eta Andres Urrutoa euskaltzainburuaren agurrak hasiera eman diote ekitaldiari. Parisen Soziologia karrera amaitzean, tesina osotzeko 1936 ondoko euskal idazleen produkzioa aztertzea aukeratu zuelarik, informazio ezaren oztopoaren kontra egin zuen Torrealdaik eta horrek bultzatu zuen lehen aldiz bibilografia lanera. "Bibliotekak eta aldizkariak arakatuz beu hasi nintzen zerrendak osatzen, oinarrizko fitxa bibliografikoa osotuz". Ekitaldi amaieran, Urrutiak euskaltzain osoa dela adierazten duen diploma eta domina eman dizkio Torrealdairi.